



IMG IGURCORAKO ERRONKAREN OINARRIAK

1. Zer da Biok!?

BiOK! Negozio-aukera berriak sortzea sustatzen duen topagunea da, BEAZek (Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Saileko erakundea) eskaintzen duena eta helburu bikoitza duena:

- Bizkaiko erreferentziako enpresek lehiakortasunaren aldetik duten kokalekua finkatzea, tokiko eta nazioarteko talentu eta gaitasunei sarbidea emanda betiere.
- Startup, ETE edo gaitasun handiko bestelako erakundeak, teknologikoak nahiz jakintza-arlo jakinekoak, Bizkaira erakartzea eta bizkortzea, merkatuko lehen aukera emanda.

Proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte BiOK! Plataforman, startupetan edo munduko edozein lekutako erakundeetan. Erreferentziako erakunde bakoitzak bere garapenerako lehentasunak identifikatuko ditu erronken bidez, eta erronkok azterketa eta hautaketa prozesuak ekarriko dituzte berekin.

Benetan uste dugu modu irekian eta elkarlanean berritzea dela dibertsifikatzeko eta hazteko biderik arrakastatsuen.

2. Dokumentuaren helburua

Dokumentu honek zerbitzua antolatzen duen BEAZ enpresaren eta IMQ Igurcoren arteko lankidetzaren oinarriak ezartzen ditu, ekosistema berritzaileari erronka bat jarri nahi baitiote.

3. Parte hartzeko baldintzak

Erronkan parte hartu ahal izango dute edozein ekintzailek, startupek, ETEk, zentro teknologikok edo unibertsitatek, baldin eta planteatutako erronka zati batez edo osorik konpontzen lagundu dezakeen proposamen bat badute. Planteatutako erronkari konponbidea eskaini nahi dioten erakundeek ez dute zertan Bizkaiko lurraldean egon.

Jatorriz edo gerora baldintza horietakoren bat betetzen ez duten parte-hartzaileak erronkatik kanpo utzi ahal izango dira: zerbitzurik jasotzeko aukera guztiak galdu eta deialdi honen antolatzaileei ezer erreklamatzeko eskubiderik gabe:

- Startup, ETE edo erakunde berak proiektu bakar batekin parte hartu ahal izango du, bakarka edo hirugarrenekin batera.
- Konponbidea garatzen parte hartuko duten proiektu-taldeko kideak adinez nagusiak izan beharko dira, eta legezko gaitasuna izan beharko dute.
- Egiazkoak eta osoak izan beharko dute parte-hartzaileek erronkan erregistratzean ematen dituzten datuek.



Deialdi honen antolatzaileek ez onartzeko edo erronkari baja ez emateko eskubidea gordetzen diete, aldez aurretik abisatu barik, beren ustez iruzurrez, gehiegikeriaz, programaren espirituaren edo legearen aurka, hirugarrenen eskubideen aurka eta/edo fede onaren aurka jarduten duten parte-hartzaile guztiei. Hori guztia, jokabide horien ondoriozko erantzukizunei kalterik egin gabe, parte-hartzaile guztiek beren gain hartuko baitituzte jokabideok, eta antolatzaileek ez dute ezer ordainduko. Edozelan ere, edozein parte-hartzailei baja eman ahal izango diote, baldin eta antolatzaileen izen onaren aurkakoa izan badaiteke bere jarduna (edo harekin lotutako pertsona batena). Era berean, edozein parte-hartzaile ez onartzeko eskubidea gordetzen dute berekin, uste badute ez dietela erantzun egokia ematen planteatutako erronkei, edo onartutako proiektu-kopuruagatik, edo beste edozein arrazoirengatik.

Erronka honetan izena emanda, parte-hartzaileek oso-osorik eta erreserbarik edo baldintzarik gabe onartzen dituzte oinarri hauetan jasotako terminoak.

4. Eskabideak aurkeztea

Ekimen honetan parte hartu nahi duten erakundeek eskabide-orria bete beharko dute, eta eskatzen zaien edo interesatzen zaien informazio guztia erantsi beharko diote inskripzioari.

- ✓ Eskabidea plataforma honen bidez aurkeztu ahal izango da:

<http://bizkaiaok.eus>

- ✓ Informazio gehigarria

info@bizkaiaok.eus

Eskaera-formularioak honako informazio hau jasoko du:

- Harremanetarako informazioa.
- Enpresaren informazio orokorra.
- Proposatutako irtenbidea.
- URL – proposatutako konponbidea azaltzeko bidea (aukerakoa)
- Proposatutako irtenbidearekin lotutako berrikuntza-elementuak (produktua, prozesua, marketina eta antolaketa) edo I+G-ko emaitzak
- Proposatutako irtenbidearekin lotutako teknologiak (halakorik badago).
- Irtenbidearen garapenean parte hartuko duen taldea.
- Etekinak.
- Arriskuak.
- Kolaboratzaileak.
- Garapenaren egoera.
- Kostua.
- Epeak.
- Bestelako oharrak.
- Datu pertsonalak babesteko politika onartzea

Hautagaitzak aurkezteko epea 2021eko azaroaren 18an hasiko da, eta 2022ko urtarrilaren 12an amaituko da, 18:00etan (GMT+1).



5. Ebaluazio prozesua

Proiekturik onenak aukeratzeko, ebaluazio-talde bat eratuko da hautaketa-prozesua egingo duten IMQ Igurco eta Beaz-eko pertsonekin.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Beazek aurkeztutako eskabideen kalitatearen lehen berrikuspena egingo du, eta eskatutako informazioa behar bezala bete ez dutenak baztertuko ditu (astebete).

IMQ Igurcoko kideek aurkeztutako eskabideak aztertuko dituzte eta ikuspuntu teknikitik baloratuko dituzte, harik eta proiektuen aurretiko hautaketa izan arte (hiru aste).

Aurrez hautatutako proiektuekin online edo telefono bidezko banakako elkarrizketak egingo dira, ebaluazio-taldeak informazio gehiago izan dezan proposatutako irtenbideari eta talde sustatzaileari buruz. Elkarrizketak 2022ko urtarrilaren 17tik 28ra bitartean egingo dira.

Proiektu finalistek "In factory innovation trip" proiektuan parte hartuko dute. Baterako sorkuntzako tailerra da, eta bi egun ditu:

- 1. eguna: IMQ Igurcoren, Bizkaiko ekosistema berritzailearen eta erronkaren xehetasunen berri izatea, egun batez elkarrekin lan eginez IMQ Igurcoren teknikariekin, proposatutako konponbideak aztertze.
- 2. eguna: hautatutako proiektuak beren konponbidea jasotako feedbackarekin eta azken aurkezpenarekin egokitzen saiatuko dira.

"In factory innovation trip"erako aurreikusitako datak 2021eko otsailaren 1ean eta 4an izango dira.

Orduan erabakiko du ebaluazio-taldeak irabazlea. Emaitzak posta elektronikoz jakinaraziko dira 2021eko otsailaren 15ean.

Aipaturiko datak saiakerak dira, eta, behar izanez gero, aldatu egin daitezke.

Proiektua aztertu eta ebaluatzeko, parte-hartzaileek antolatzaileei baimena ematen diete parte-hartzaileak deialdi honetan parte hartzeko esparruan emandako ideiak, hain zuzen ere dokumentazioa eta informazioa ebaluatzeko taldeko kideei jakinarazteko.

Ebaluazio-taldeak proposamen finalista bakoitzaren honako alderdi hauek baloratuko ditu:

- Berrikuntza: proposatutako irtenbidearen berrikuntza maila baloratuko da.
- Proiektuaren eraikuntza maila: proposatutako irtenbidearen garapen maila.
- Proiektuko taldea: parte hartzen duen/duten erakundeko/erakundeetako taldea, esperientzia, dedikazioa, merkatuaren ezagutza, kontaktuak eta abar baloratuko ditu.



- Epeak: soluzioa merkatuan operatibo egon daitekeen denborak.
- Bideragarritasuna: proiektuaren bideragarritasuna eta irtenbidearen kostua, eta ingurune erreal batean mantentzea.
- Proiektuaren norainokoa: proposatutako konponbidearen erantzun maila eta planteatutako arazoari nola heltzen dion baloratuko da.

6. Proiektu irabazlea

IMQ Igurcok erronkaren irabazlea izango den enpresa hautatuko du, eta konpromisoa hartuko du enpresa irabazleari proiektu pilotu bat egiteko. Proiektu horren balioa 15.000 €-koa izango da gutxi gorabehera, eta, jasotako irtenbide-proposamenen arabera, 20.000 €-ra arte handitu ahal izango da.

Enpresa irabazleak 6 hilabeteko epea gutxi gorabeherakoa izango du proiektua gauzatzeko. Epe hori banaka adostuko da IMQ Igurcorekin.

7. Jabetza industrial eta intelektual

Une oro, hautagaitza aurkeztu duen pertsonaren edo enpresaren jabetzakoak izango dira proiektua eta horren ondoriozko patenteak. Erronkan parte hartzeak ez du esan nahi hautagaiak enpresa erreferenteari partaidetza lagatzen dionik.

Alabaina, proiektu irabazleak erreferentziazko enpresarekin konponbide pilotu erreala lortzeko erronka gauzatzeak bi alderdiak lotuko dituen kontratu bat sinatzea ekarriko du, eta kontratu horretan, besteak beste, pilotua gauzatzean izan litezkeen propietate industrialen/intelektualen ondoriozko erabilera-baldintzak adostuko dira.

8. Azken gogoetak

Parte-hartzaileek beren beregi onartzen dute, deialdi honetan parte hartze hutsagatik, antolatzaileek beren izena, baita startup delakoa ere, eta lotutako irudiak eta/edo logoak edozein bitartekoren bidez erabili ahal izatea, betiere korporazio-, publizitate- eta sustapen-helburuekin eta/edo proiektu irabazlea gainerako parte-hartzaileei eta, oro har, publikoari jakinarazteko, inolako lurralde-mugarik eta denbora-mugarik gabe, eta ordainsaririk gabe.

Erronka hau aldatu, eten, desaktibatu eta/edo ezeztatu ahal izango da, hala eskatzen duten egoera justifikatuak gertatzen badira.

Era berean, antolatzaileek beretzat gordetzen dute onura guztiak edo batzuk esleitu gabe uzteko eskubidea, aurkeztutako proiektuek ebaluazio-taldearen iritziz finalista edo irabazlea izatea merezi ez badute.